

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**9801** *10/2015 Errege Lege Dekretua, irailaren 11koa, Estatuaren aurrekontuetan aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak ematen dituen eta enplegu publikoaren eta ekonomia suspertzearen arloan beste neurri batzuk hartzen dituena.*

I

Langile publikoek ahalegin nabarmena eta zuzena egin dute ekonomia suspertzeari eta Espainiak zerga-baterakuntzaren alorrean hartu dituen konpromisoak betetzeari dagokionez.

Ekonomia-krisi larriaren eta finantzaketa lortzeko zailtasunen aurrean, premiazko neurri jakin batzuk hartu ziren enplegu publikoari dagokionez, gastu publikoa murrizteko helburuz, eta funtsean neurri horiek jaso zituzten 20/2011 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 30ekoak, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurri buruzkoak, eta 20/2012 Errege Lege Dekretuak, uztailaren 13koak, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurri buruzkoak.

Aipatutako uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren arrazoi azalpenean adierazi bezala, neurri horiek behin-behinekoak ziren, eta asmoa zen ekonomiaren eta finantzen ezohiko egoerak iraun bitartean soilik aplikatzea.

Legegintzaldi honetan biziki egin da lan zerga-baterakuntzarako helburuak lortzeko, ekonomiaren hazkundera eta enplegua sortzea xede zuen defizit publikoaren murriztapenera bideratutako zerga- eta aurrekontu-politika bat aplikatuta.

Zerga- eta aurrekontu-politika zorrotz horrek, legegintzaldi honetan onartutako egiturazko erreforma handinahiak aplikatzearekin batera, emaitza onak izan ditu, eta, horren adierazle gisa, aurrerapenak egin dira zerga-arauak betetzeari dagokionez, eta berriro heldu zaio hazkunde ekonomikoaren bideari. Hala, Espainiako ekonomiak berreskuratu egin du nazioartean zuen konfiantza, eta tributu-bilketa areagotu egin da. Horri guztiari esker, eta inpaktu ekonomikoa finantza-aukerekkin bat etorrita, egindako ahaleginak beren ordaina jasotzen ari dira apurka-apurka.

Modu horretan, 2013 amaieran nobere kontuetarako laugarren eguna berrezarri zen, eta 2014an bosgarren eguna itzuli zen; ezarpen horiek administrazio publiko guztietan aplikatu ziren.

Ordainsariei dagokienez, 2015. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legeak ezarri zuen 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren laurdena (% 24,04) itzuli egingo dela, eta hala egin da 2015eko urtarriletik aurrera.

Ekonomiaren hazkunde iraunkorraren bidea indartzeko helburuz, nahitaezkoa eta premiazkoa da errege lege-dekretu hau onartzea, bere I. kapituluan zenbait neurri jaso baititu modu zuzenean ekonomiaren hazkundera laguntzeko eta enplegu publikoaren funtzionamenduari dagokion eraginkortasunaren hazkundera sakontzeko, bateragarria izanik zerga-arauak betetzeko behararekin.

Neurriok, bereziki, honako hauek dira:

- Langile publikoen 2012ko aparteko ordainsari gehigarriaren zati bat berreskuratzea.
- Nobere kontuetarako egunen kopurua aldatzea eta seigarren egun bat lehengoratzea, eta nobere kontuetarako baimen-egunak antzintasunaren arabera areagotzea, baita Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aitortutako opor-egunak ere, horiek ere antzintasunaren arabera emendatuta.

Diruzaintza-funtzioetarako Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioen erregimenari dagokionez, presakoa da legeria-erreforma bat onartzea funtzio horiek gauzatzeko ardura idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako azpieskalari esleitze aldera, funtzio horiek profesionalizatzearen Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak abiarazitako ildo beretik.

Horrekin, aurrerapausoak egingo dira Estaturako gaikuntza duten Toki Administrazioako funtzionarioentzat gordetako funtzioak profesionalizatzeari eta haien eraginkortasunari dagokionez.

Berriki toki-korporazioak sortu direnez gero, egiaztatu egin da udal gehienetan funtzio horiek gelditzea saihesteko ezohiko eta premiazko beharra dagoela.

## II

Errege lege-dekretu honen II. kapituluak arautu egiten du aparteko zenbait kredituren eta kreditu-gehigarriren esleipena, langile publikoen aparteko ordainsari gehigarriaren zati baten berreskurapena finantzatzeko aldera, bai eta Defentsa, Sustapen eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioen beharrak asetzeko ere, jarraian aurkeztutako baldintzei jarraikiz:

1. «Zenbait ministerioren gastuak» 31. ataleko aurrekontuan 251.858.960,10 euroko kreditu-gehigarri bat esleitzea, langile publikoen 2012ko aparteko ordainsari gehigarriaren zati baten berreskurapena finantzatzeko.

Lehenago adierazi bezala, errege lege-dekretu honek arautu egiten du 2012ko abenduko aparteko ordainsari gehigarriaren ezabaketaren ondorioz benetan jaso gabe gelditu ziren zenbatekoen ordainketa, berreskurapen gisa, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak xedatutakoari jarraikiz. Horren helburua da langile publikoei erosteko ahalmena itzultzea, 2012ko abenduko aparteko ordainsari gehigarria berreskuratzearren bidez. Adierazle makroekonomikoek agerian jartzen dute ekonomiaren susperraldiaren eta hazkundearen bideari heldu zaiola, eta horrek aurrekontuen egonkortasunaren alde egindako ahaleginak itzultzea ahalbidetzen duela.

Aipatutako ordainsariak ordaintzeari ekiteko, «Zenbait ministerioren gastuak» 31. ataleko aurrekontuan 251.858.960,10 euroko kreditu-gehigarri bat esleitu da, eta zenbateko hori ministerio-sailen eta erakunde publikoen aurrekontuetara bidali ahal izango da beren «Langileen gastuak» 1. kapituluaren finantzaketa-tarterik ez duten neurrian.

2. Defentsa Ministerioaren aurrekontuan 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat esleitzea, ibilgailuak erostera bideratua.

Lurreko Armadak taktikako eta logistikako ibilgailuen bitarteko erabilgarriak osatzeko premia dauka, materialaren erabilera handiaren ondorioz garaia baino lehen hondatu diren ibilgailuak berritzeko eta ordezkatzeko, bai eta hurrengo ordezkapenetan parte hartuko duten langileen trebakuntza aurrera eramateko ere, kanpoko operazioetan erabiltzen diren antzeko baliabideak erabilia, modu horretan baliabide horiek eta bakoitzaren elementuak erabiltzeko prozedurak ezagutu daitezela ahalbidetuz. Erabilera desegoki batek edo entrenatu gabeko erantzun-erreakzioek eragindako arriskuak murriztean datza.

Egoera kritikoa da material mota horri dagokionez. Operazio aktiboetan eta ziur aski epe laburrean abiaraziko diren erabiltzen diren kontingenteen laguntza logistikoaren, trebakuntzaren eta prestaketaren beharra dela-eta, premiazkoa da mugikortasun taktikorako gaitasunari eusteko nahikoa ibilgailu erostea.

3. Sustapen Ministerioaren aurrekontuan aparteko kredituak eta guztira 282.382.758,73 euroko kreditu-gehigarri bat esleitzea, honako xede hauetarako:

3.1 Guztira 251.332.838,73 euroko aparteko kredituak, aurreko ekitaldietako obligazioak ordaintzeko.

2014ko kontuak eta aurrekontua ixteko orduan, agerian geratu da hainbat gastu ez zutela aurrekontu-estaldurarik edo haiek estaltzeko nahikoa estaldura-aurreikuspenik izan, baina gastuak kontabilitatean jaso dira eta haien eragina ekitaldi horretako abenduaren 31ko defizitean geratu da jasota kontabilitate nazional gisa.

Errepide Zuzendaritza Nagusiaren inbertsio-jarduketei dagozkien gastuak dira, desjabetzei, berandutze-interesei, prezioen eta ziurtagirien berrikuspeni eta azken likidazioei loturikoak, 251.332.838,73 eurokoak guztira.

Gastu horiek obligazio galdagarri dira Administrazioarentzat, erregularizatu eta aurrekontuan aplikatu beharrekoak ordaindu ahal izateko; beraz, alde aurretik dagokion kreditua egon beharko da aurrekontuan, eta hori zuzkitzera bideratuko dira errege lege-dekretu honek onartutako kredituak.

Obligazio horiek aurrekontuari egozteko lege mailako araua eman behar da, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 34.4 artikulua xedatutakoarekin bat.

Bestalde, ordaindu nahi diren obligazioak 2014ko defizitari egotzi zaizkionez gero, ematen diren aparteko kredituek ez dute Estatuak 2015ean izango duen finantzaketa-gaitasuna murrizten; gainera, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 59. artikulua xedatutakoa aplikatuta, ezin dira finantzatu aurrekontua betearazteko Kontingentzia Funtsekin kontura. Horren ondorioz, honako errege lege-dekretuak aparteko kredituak zor publikoaren bidez finantzatzea xedatzen du.

Errege lege-dekretu bidez kreditu-gehigarriak ematea justifikatzen duten arrazoiak dira Administrazioak nahitaez erantzun beharreko obligazioak ordaintzea eta ordainketa ez atzeratzea, kaltetutako hirugarren pertsonengan eraginik ez izatearren, bai eta aurrekontu-ekitaldi hau amaitu baino lehen ase ahal izatea ere.

3.2 31.049.920 euroko kreditu-gehigarria, «Oleg Naydenov» itsasontzia hondoratzeak eragindako gastuei aurre egiteko.

«Oleg Naydenov» itsasontzia hondoratzearen eta bere erregaia ateratzearen ondorioz, Sustapen Ministerioiko Garraio Idazkaritza Nagusiari atxikitako Itsasoko Salbamendu eta Segurtasun Elkartea (SASEMAR), Azpiegitura, Garraio eta Etxebizitzako Estatu Idazkariaren zuzendaritzapean eta Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 2015eko ekitaldian itsas kutsaduraren aurkako jarduketa jakin batzuk gauzatu ditu eta gauzatu behar ditu, zerbitzu publikotzat jotakoak Estatu Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 263. artikuluan xedatutakoaren arabera.

SASEMAR erakundeak jarduketa horiek gauzatzeko 31.049.920 euroko gastu handiagoak eragin ditu 2015eko bere ustiapen-aurrekontuko partida jakin batzuetan, hasiera batean kontuan eduki ez ziren arren. Horiek «Hornidurak» epigrafearen barruko «Beste enpresa batzuek egindako lanak» kontuan jaso dira, «Oleg Naydenov» itsasontzia hondoratzearen eta bere erregaia ateratzearen ondoriozko aparteko gastuak finantzatze aldera.

Ustiapen-aurrekontuan, gastuaren hazkunde hori finantzatzeko, «Ekitaldiaren emaitzan sartutako ustiapenerako diru-laguntzak» kontuan emendio bat egin beharra dago, eta SASEMAR erakundearen aldeko transferentzia arruntak ere 31.049.920 euroan areagotu, Merkataritzako Nabigazioaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuaren barruan.

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 67.2. artikulua adierazten du Estatuaren Aurrekontu Orokorretan jasotako estatu-ekarpenei eragiten dieten Ustiapen eta Kapital Aurrekontuak aldatzeko eskumena dagozkien aurrekontu-kredituen eskumena izango lukeen autoritate berberari dagokiola, eta, beraz, hura errege lege-dekretu honetan jaso egin da.

Kroskoan gelditzen den erregaia ateratzeko jarduketak gauzatzeko beharra aparteko arrazoi da, eta justifikatu egiten ditu errege lege-dekretuaren bidezko kreditu-gehigarriaren izapideak.

4. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrekontuan guztira 76.329.922,47 euroko aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak esleitzea, honako xede hauetarako:

Lehenik, 2014ko kontuak eta aurrekontua ixteko orduan estaldurarik edo nahikoa estaldura-aurreikuspenik izan ez zuten gastuak erregularizatu eta aurrekontuan aplikatu nahi dira, ziurtagirien, prezio-berrikuspenen, desjabetzeen eta Uraren Zuzendaritza

Nagusiaren inbertsio-jarduketei dagozkien bestelako gertakarien ondoriozkoak (36.010.368,32 euro).

Bigarrenik, konfederazio hidrografikoei finantzaketa eman zaie, era berean, Estatuaren titulartasuneko ondasunei dagokien OHZren inguruko aurreko ekitaldietako obligazioak ordaintzeko (40.319.554,15 euro).

Aurreko eragiketak, 76.329.922,47 eurokoak, kontabilitatean sartu dira eta beren intzidentzia 2014ko defizitean erregistratu da. Horregatik, zenbateko horrekin emandako aparteko kredituek eta kreditu-gehigarriek ez dute Estatuak ekitaldi honetan duen finantzaketa-gaitasuna murriztuko.

Aurreko gastu guztiak obligazio galdagarri dira Administrazioarentzat, erregularizatu eta aurrekontuan aplikatu beharrekoak ordaindu ahal izateko; beraz, alde aurretik dagokion kreditua egon beharko da aurrekontuan.

Obligazio horiek aurrekontuari egozteko, lege-mailako araua eman behar da, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 34.4 artikulua xedatutakoarekin bat.

Errege lege-dekretu bidez aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak ematea justifikatzen duten arrazoiak dira Administrazioak nahitaez erantzun beharreko obligazioak ordaintzea eta ordainketa ez atzeratzea, kaltetutako hirugarrenen pertsonengan eraginik ez izatearren.

### III

III. kapituluak, azkenik, finantza-arazoak dituzten udalen likidezia hobetzeko eta sektore publikoko berankortasuna murrizten jarraitzeko neurriak jaso ditu.

Lehenik, eta ekonomiaren hazkundera bultzatzeko konpromisoaren zati moduan, helburua da epe laburrean likideziaz hornitzea finantzei dagokienez arriskuan dauden eta, beste batzuekin batera, abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuaren bidez osatutako Antolamendu Funtsean sartzea eska zezaketen udalak. Helburua da egoera finantzarioa konpontzea kreditu-erakundeei ordaindu beharreko obligazioak betetzeari dagokionez; izan ere, funts hori epemugez arduratu daiteke, baina epe laburrean ez die erakunde horiei finantza-baliabiderik ematen. Neurria urgentetzat eta aparteko premiazotzat hartzen da, finantza-desoreka handiak dituzten udaletako tokiko gobernu berriei aukera ematen baitie berehalako epemuga eta galdagarritasuna duten ordainketa obligazioei erantzuna emateko baliabideak eskuragarri edukitzeko, lehentasunez ordaindu beharreko gastuak ordaintzeke utzi gabe.

Bigarrenik, urrats bat gehiago eman nahi da berankortasuna desagerrarazteko prozesuan.

Berankortasuna arazo ekonomikoa da, eta ez die Administrazioei bakarrik eragiten, haien finantza-iraunkortasuna kaltetuz, berandutze-interesak ordaintzeak denborarekin eragiten duen gainkostua dela-eta; enpresei ere eragiten die. Berankortasunak transakzio-eta finantzaketa-gastuak eragiten dizkie Administrazioen hornitzaileei, eta horrek ekonomia osoari ondorio moduan eraginkortasun- eta lehiakortasun-galera dakarzkio.

Arazo horrek ekonomiarentzat duen garrantzia kontuan hartuta, legegintzaldi honetan abaguneko eta egiturazko erreforma garrantzitsuak jarri dira abian, eta horiek ahalbidetu dute sektore publikoan ordaintzeke zeuden fakturen stocka garbitzea eta arazo hori etorkizunean errepikatzea saihesteko oinarriak ezartzea.

Alabaina, Europako Batzordeak epatze-gutun bat helarazi dio Espainiako Erresumari, eta bertan adierazitako datu batzuek agerian jartzen dute ez direla ordainketa-epe batzuk bete, merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako borrokarako neurriak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/7/UE Zuzentarauak ezarritakoak. Horretarako, aintzatetsi egiten ditu sektore publikoan berankortasuna desagerrarazteko gauzatutako aurrerapenak eta arau-erreformak, baina, era berean, sektore pribatuan ordainketa-epeak murriztea gomendatzen du.

Berankortasuna desagerraraztera eta aipatutako Europako Zuzentarauak ezarritako ordainketa-epeak modu egokian bete daitezela laguntzera bideratutako egiturazko erreforma horietan sakontzeko, Sektore Publikoaren Kontratuen Legea aldatu da,

kontratazio publikoko prozesu batean lehiatzean hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea eranstearen enpresarien kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa bermatzeko elementu gisa.

Neurri hori beharrezkoa eta premiazkoa da adierazitako Europako Zuzentarauan aurreikusitako ordainketa-epeak modu egokian bete daitezela berehala sustatzeko, bereziki sektore pribatuari dagokionez, Europako Batzordeak bere epatze-gutunean gomendatzen duen moduan, eta lagungarria da ekonomiaren hazkundera sendotzeko.

## IV

Errege Lege Dekretuak, gainera, laugarren xedapen gehigarri bat jaso du, eta bertan Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioako Aurrekontu eta Gastuen Estatuko Idazkaritzari baimena ematen zaio Europako Inbertsio Funtzaren (EIF) aldeko ETE 2014-2020 ekimenaren (EIF/SME Initiative Spain–Dedicated Window Account) Programa Eragileko eragiketetarako erreserbatuta dagoen kontu bereziko aktiboak pignoratzeko, dagozkion bahi-kontratua gauzatzearen bidez.

Bahia Espainiako Erresumak EIFrekiko dituen obligazioak bermatzeko osatuko da, Espainiako Erresumak EIFrekin izenpetutako akordioekin bat sortuak eta ETE 2014-2020 ekimenaren Programa Eragileari dagozkionak.

1303/2013 Erregelamenduaren 39.7. artikuluari jarraikiz, Batzordeko kide den estatu baten ordainketa-eskaerek oinarri gisa hartzen dituzte berme-kontratuei edo titulazte-eragiketei dagozkien konpromisoak finantzatzeko beharrezkotzat jotzen diren EIFk eskatutako zenbatekoak. Halaber, estatu kideen ordainketak atzerapenik gabe eta, edozein kasutan ere, EIFk finantza-erakundeekiko konpromisoak bere gain hartu baino lehen gauzatu daitezzen galdatzen du. Hortaz, ekimena ezin daiteke abian jarri EIFk bahiaren kontuan eskatutako zenbatekoak eduki gabe.

Jarduketa berria denez gero, ekimena abian jartzeko akordioei dagokien lege-esparru egokia ezartzeko kontsulta- eta eztabaida-prozesua gehiegi luzatu da. Kontuan hartuta Europako Batzordeak dagoeneko itzuli dituela eskatutako zenbatekoak, Batzordea bera kopuru horiek urgentziaz EIFri eskualdatzea erreklamatzeko ari da, eta horrek justifikatu egiten du neurria errege lege-dekretu honetan gehitu izana.

Halaber, errege lege-dekretuak jasotako azken xedapen batek Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatu du, unibertsitate publikoetako irakasle- eta ikertzaile-postuei dagokien sarbide- eta zuzkidura-sistemaren funtsezko bi gairi heltzeko xedez. Alde batetik, unibertsitateko katedradunen kidegora barne-sustapen bidez sartu ahalko dela ezarri da, eta aukera hori unibertsitateko katedradun izateko egiaztagiri nazionala eskuratu duten irakasle titularrentzat gordeko da. Bestetik, unibertsitate batean hutsik diren irakasle-postuak beste unibertsitate batzuetako irakasle titularrez eta katedradunetz hornitzeko aukera modu iraunkorrean ezarri da, 2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak aldi baterako onartu ondoren.

Zenbait urtez birjarpen-tasa aplikatzeak lanean hasitako eta sustatutako unibertsitateko irakasle berriak mugatu izan ditu, eta orain, unibertsitateek talentuari eusteko eta, hortaz, birjarpen-tasa irakasle gazteak atxikitzeke aplikatzeko duten politikak eragin negatiboa izan du unibertsitateko katedradunen kidegoan. Unibertsitateko katedradunek erretiroa hartzean ezin izan dira haiek utzitako postuak katedradun berriekin konpentsatu, unibertsitateek ez baitute halakorik egin ahal izateko birjarpen-tasarik. Ondorioz, unibertsitateko irakasle funtzionarioen desoreka nabarmena eta geroz eta handiagoa da, eta barne-sustapenaren bidez konpondu behar izan da. Barne-sustapena unibertsitateko irakasle titularren kidegoari zuzenduta egongo da, eta aukera emango du unibertsitateko irakasle titularren eta unibertsitateko katedradunen arteko banaketa zehazteko, betiere irakasle funtzionarioen guztirako kopurua aldatu gabe.

Hasi berri den 2015/16 ikasturtean ezartzeko premiak justifika dezake irakasleen eta ikertzaileen sustapena eta mugikortasuna estimulatzerako bideratutako neurri horiek errege lege-dekretuan jaso izana. Horrek, era berean, erantzuna emango dio Espainiako unibertsitate-sistemari, unibertsitate publikoen eraginkortasuna eta efizientzia berehala hobetzea ahalbidetuko baitu giza baliabideen esleipenari dagokionez, ezinbesteko aktiboak

izanik emandako zerbitzu publikoen kalitatea hobetze aldera. Neurri horietako batzuen ezarpena 2015ean aldi baterako onartu bada ere, beren ondorio positiboak maximizatu izanak neurriok unibertsitate-arkitekturan sendotzea eskatzen du, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan jasotzearen bidez.

V

Kasu bakoitzean adierazi diren arrazoi jakinak alde batera utzirik, enplegua sortzea ahalbidetze aldera ekonomiaren garapena lehenbailehen bultzatzeko beharrak justifikatu egiten du batera gertatzen direla Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua errege lege-dekretuaren figurara jo ahal izateko galdatzen dituen aparteko eta premiazko baldintzak, xedapen honen edukia osatzen duten neurriek aditzera ematen duten moduan.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Ogasun eta Herri Administrazioako ministroak proposatuta, II. kapituluari dagokionez Estatu Kontseiluarekin bat etorri eta Ministro Kontseiluak 2015eko irailaren 11ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### Enplegu publikoaren arloko neurriak

1. *artikulua. Sektore publikoko langileen 2012ko abenduko aparteko ordainsaria eta ordainsari gehigarria berreskuratzea.*

Bat. Sektore publikoko langileen 2012ko abenduko aparteko ordainsaria eta ordainsari gehigarria berreskuratzea.

1. Administrazio publikoek, bai eta beren mendeko eta berei lotutako erakundeek ere, 2015eko ekitaldian aparteko ordainsari bat ordainduko dute, behin bakarrik, eta haren zenbatekoa aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua betetzearen ondorioz 2012ko abenduari zegozkion aparteko ordainsaria, berariazko osagarriaren ordainsari gehigarria edo ordainsari gehigarri baliokideak kentzeagatik jaso gabe geratu ziren kopuruen 48 egunen edo ehuneko 26,23ren baliokidea izango dela, artikulua honetan zehaztutako irismen eta mugei jarraikiz.

2. Kontzeptu horregatik ordaindu ahal izango diren zenbatekoak, langile bakoitzak uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz jaso ez duen zenbatekoaren gainean, abenduari zegozkion aparteko ordainsariaren, berariazko osagarriaren ordainsari gehigarriaren eta ordainsari gehigarrien 44 egun dagokion zati proportzionalaren baliokideak izango dira. 2012ko abenduko aparteko ordainsari eta ordainsari gehigarri osoa aitortu ez den kasuetan, 48 egunak proportzionalki murriztuko dira, dagokion egun-kopurua lortu arte.

Aurreko zenbakian aurreikusitako ondorioetarako, 48 egun, edo hortik beherako egunei, dagokion aparteko ordainsariaren eta ordainsari gehigarrien zatiaren zenbaketa egiteko, administrazio bakoitzari aplikatu dakizkiokeen funtzio publikoko arauak jarraituko dira funtzionarioen edo estatutupeko langileen kasuan, eta ordainsariak jasotzeari utzi zioten unean indarrean ziren lan arloko arauak eta arau orokorrak, berriz, langile lan-kontratudunen kasuan.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua 5. zenbakian aipatutako langileei kontzeptu horregatik aitortutako zenbatekoak aipatutako araua aplikatzearen ondorioz jaso ez duten zenbatekoaren ehuneko 26,23ren baliokideak izango dira, haien ordainsari-araubidean aparteko ordainsariak jasotzea aurreikusita ez egoteagatik, edo urtean bi baino gehiago jasotzeagatik.



Ordaindu beharreko zenbatekoak murriztu egingo dira kontzeptu horiengatik eta aldiengatik jasoko ziren zenbatekoetan, epai judizial baten edo beste jarduera baten ondorioz.

3. Administrazio publiko bakoitzak artikulua honetan aurreikusitako kopuruak 2015eko ekitaldian ordainduko ditu baldin eta hala adosten badu eta bere egoera ekonomiko eta finantzarioak ahalbidetzen badu. Bere egoera ekonomiko eta finantzarioak 2015ean ordaintzea ahalbidetzen ez badu, ordainketa egoerak aukera ematen duen lehen ekitaldian egingo da.

Agindu hori aplikatuta administrazio bati baino gehiagori badagokio 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren, berariazko osagarriaren ordainsari gehigarriaren eta ordainsari gehigarrien zati hori ordaintzea, administrazio bakoitzak gehienez ere ordaindu ahal izango du 2012ko abenduan gauzatzea egokituko litzaiokeen kopuruaren zati proportzionala.

4. Artikulu honetan ezarritakoa betez ematen diren zenbatekoek murriztu egingo dute uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua 4. zenbakian jasotako aurreikuspenen hedadura.

Bi. Estatuko sektore publikoko langileen 2012ko abenduko aparteko ordainsaria eta ordainsari gehigarria berreskuratzea.

1. Estatuko sektore publikoko langileek –zehazki, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen 22. artikulua Bat zenbakiko a), d) eta e) letretan zehaztuta daudenek– artikulua honen Bat.2 zenbakian aurreikusitako zenbatekoak jasoko dituzte, baita aipatutako arauaren f) eta g) letretan jasotako sozietate, erakunde eta gainerako organismoetako langileek ere.

2. Aurreko zenbakian adierazitako aparteko ordainsaria eta ordainsari gehigarriak berreskuratzeke, arau hauek beteko dira:

a) Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua 1. eta 2. puntuetan bildutako langileek 2012ko abenduan jaso ez zituzten aparteko ordainsariaren eta ordainsari gehigarrien edo baliokideen 48 egun dagokion zati proportzionala jasoko dute. Ezabatuta gelditu ziren 2012ko abenduko aparteko ordainsari eta ordainsari gehigarri edo baliokide osoa aitortu ez diren kasuetan, 48 egunak proportzionalki murriztuko dira, dagokion egun kopurua lortu arte.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioetarako, 48 egunei dagozkien kopuruak zehazteko, ezabatuta gelditu ziren 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren eta ordainsari gehigarrien edo baliokideen egun-kopuru osoa aintzat hartuta, langile mota bakoitzari aplikatzekoak zaizkion kalkulu-arauak erabiliko dira, ordainsariak ezabatu zirenean indarrean zeukaten araubide juridikoaren arabera.

Aplikatzekoa den araudiak besterik xedatzen duenean salbu, aurreko lerrokadan adierazitako egunak 183 izango dira guztira.

b) Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 519. artikulua xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua 3., 3 bis, 3 ter eta 4. puntuetan bildutako langileek arau horiek aplikatzearen ondorioz jaso ez dituzten zenbatekoen ehuneko 26,23 jasoko dute.

c) a) letran aurreikusitakoa aplikatuko zaie Estatuko idazkariei, idazkariordeei, zuzendari nagusiei eta parekatuei, baita Estatu Kontseiluko kide iraunkorrei eta idazkari nagusiarri ere, funtzionarioei aplikatzen zaien modu berean.

Ekainaren 29ko 2/2012 Legearen 24. Hiru artikuluan adierazitako langileei ere aplikatuko zaie a) letran xedatutakoa. Aparteko ordainsaria jasotzeko eskubidea izan ez badute, jaso ez duten zenbatekoaren ehuneko 26,23 jasoko dute, 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betez.

d) 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua 1. eta 3. puntuetan jasotako goi-kargudunek jaso ez duten zenbatekoaren ehuneko 26,23 jasoko dute, 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betez.

e) Estatuko Administrazioarekiko duten zerbitzu-erlazioaren izaera juridikoa aldatu gabe haren barruan destinoa aldatu duten langileei, arau hau indarrean jartzean haien

zerbitzuak jasotzen ari diren ministerio, organismo edo erakundeak ordainduko dizkie zenbaki honetan adierazitako zenbatekoak; horretarako, langileek eskaera egin beharko diote langile-kudeaketarako organoari, jatorriko gaikuntzaren ziurtagiria aurkeztuta, adieraziz zein kontzeptu eta zenbateko gelditu zaizkien jaso gabe, 2012ko abenduari zegozkion aparteko ordainsaria, berariazko osagarriaren ordainsari gehigarria edo ordainsari gehigarri baliokideak ezabatu izanaren ondorioz. Ziurtagiri hori aurretik aurkeztu baldin bada, ez da beharrezkoa izango hura berriro aurkeztea.

Zerbitzuak beste administrazio publiko batean ematen hasi diren langileei, aparteko ordainsaria ordaindu behar zien ministerio, organismo edo erakundeak ordainduko dizkie zenbaki honetan adierazitako zenbatekoak; horretarako, langileek eskaera egin beharko diote langile-kudeaketarako organoari.

Arau hau indarrean jartzean zerbitzu aktiboan edo parekatuan ez dauden langileei, edo enplegatu publiko izaera galdu dutenei, aparteko ordainsaria ordaindu behar zien ministerio, organismo edo erakundeak ordainduko dizkie xedapen honetan adierazitako zenbatekoak; horretarako, langileek eskaera egin beharko diote langile-kudeaketarako organoari, jatorriko gaikuntzaren ziurtagiria aurkeztuta, adieraziz zein zenbateko gelditu zaizkien jaso gabe, 2012ko abenduari zegozkion aparteko ordainsaria, berariazko osagarriaren ordainsari gehigarria edo ordainsari gehigarri baliokideak ezabatu izanaren ondorioz.

Xedapen hau indarrean jartzerako hilik dauden langileen kasuan, Zuzenbide Zibilaren arabera langile horien jaraunsle direnek egin beharko dute aurreko lerrokadan aipatutako eskaera.

f) Aurreko zenbakietan ezarritakoa aplikatuko zaie, halaber, Estatuaren sektore publikoko fundazioetako langileei, Estatuaren Administrazio Orokorraren edo horren mendeko organismo zein erakundeen gehiengo partaidetza duten partzuergoetako langileei, Espainiako Bankuko langileei, eta Gizarte Segurantzaren lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetako eta horien erakunde nahiz zentro mankomunatueta zuzendariei zein gainerako langileei.

Hiru. Eten egiten da, eta ondorerik gabe uzten, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurrii buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 24. artikulua aplikazioa, artikulua honetan xedatutakoa aplikatzeko guztiz beharrezkoa den zatian.

Lau. Artikulu honen Bat eta Hiru zenbakiek oinarrizko izaera dute, eta Konstituzioaren 149.1.18, 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean eman dira.

## 2. artikulua. *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea aldatzea.*

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 48. artikuluko k) letra aldatu da; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«48. artikulua. *Funtzionario publikoen baimenak.*

Baimen hauek izango dituzte funtzionario publikoek:

k) Norberaren kontuetarako, urtean sei egun.»

Bi. Beste xedapen gehigarri bat erantsiko da, hamalagarrena, honela idatzita:

«Hamalagarren xedapen gehigarria. *Antzinasun-baimena, norbere kontuetarako.*

Seigarren hirurtekoa betetakoan, administrazioak gehienez ere bi egun gehigarri eman ahal izango ditu norbere kontuetarako. Zortzigarretik aurrera betetzen den hirurteko bakoitzeko, gehienez ere beste egun bat gehitu ahal izango da».



Hiru. Hamabosgarren xedapen gehigarri berri bat eransten da, honako idazketa honekin:

«Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Opor-egun gehigarriak antzintasuna dela eta.*

Administrazio publiko bakoitzak gehienez lau opor-egun gehigarri ezarri ahal izango ditu funtzionario publikoek betetako zerbitzu-denboraren arabera.»

3. *artikulua. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzea.*

Aldatu egin da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«2. Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen eskala honako azpieskala hauetan banatzen da:

- a) Idazkaritza; hari dagozkio aurreko 1.a) letran jasotako eginkizunak.
- b) Kontu-hartzailatza eta diruzaintza; hari dagozkio aurreko 1.b) letran jasotako eginkizunak.
- c) Idazkaritza eta kontu-hartzailatza; hari dagozkio 1.a) eta 1.b) letran jasotako eginkizunak.»

## II. KAPITULUA

### Aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak

4. *artikulua. «Zenbait ministerioren gastuak» 31. ataleko aurrekontuan kreditu-gehigarri bat esleitzea eta kreditu-transferentziak egiteko baimena ematea.*

1. 2015. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen 1. artikulua a), b), d) eta e) zenbakietan zehaztutako Estatu sektore publikoko langileei dagokienez errege lege-dekretu honek adierazitako obligazioak ordaintze aldera, 251.858.960,10 euroko kreditu-gehigarri bat emango da ondoko aurrekontuan: «Zenbait ministerioren gastuak» 31. atala, «Aurrekontu Zuzendaritza Nagusia. Ministerio Sailen Gastuak» 02. zerbitzua, «Ezustekeko gastuak eta sailkatu gabeko funtzioak» 929M programa, «Langileen gastuak» 1. kapitulua, «Funtzionarioak» 12. artikulua, «Ordainsari osagarriak» 121. kontzeptua, «Langile publikoen 2012ko abenduko aparteko ordainsari gehigarria berreskuratzea» 121.07. azpikontzeptua.

Halaber, kreditu-gehigarri horrek finantzatu ahal izango ditu Osasun Kudeaketako Institutuan (INGESA) eta Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuan (IMSERSO) sortutako obligazioak.

2. Aurreko zenbakian esleitutako kreditu-gehigarriaren kargurako, dagozkion kreditu-transferentziak gauzatuko dira, bidezkoak diren Estatu Aurrekontuen ataletan, eragina jaso duten erakunde publikoetan –INGESA eta IMSERSO– 2012ko abenduko aparteko ordainsaria eta ordainsari gehigarria ordaintzeko beharrezkoak diren kredituak emate aldera, kontuan hartuta dagozkien aurrekontuetako «Langileen gastuak» 1. kapituluko zuzkidurek ezin estal ditzaketela.

3. Artikulu honen 2. zenbakian xedatutakoari jarraikiz egindako transferentzietan ezin izango da aplikatu Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 52.1.c) artikuluan ezarritako mugaketa.

5. *artikulua. Defentsa Ministerioaren aurrekontuan aparteko kreditu bat ematea.*

Lurreko Armadarentzako ibilgailuak eroste aldera, 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat emango da aurrekontuan, kontzeptu honetan: «Defentsa Ministerioa» 14. atala, «Lurreko Armada» 12. zerbitzua, «Indar armatuak modernizatzea» 122A programa,

«Inbertsio errealak» 6. kapitulua, «Inbertsio militarrek eta azpiegiturak eta beste ondasun batzuk» 65. artikulua, «Ibilgailu militarrek erostea» 651 kontzeptua.

6. *artikulua. Sustapen Ministerioaren aurrekontuan aparteko kredituak eta kreditu-gehiarri bat esleitzea eta SASEMAR erakundearen ustiapen-aurrekontua aldatzea.*

1. Aurreko ekitaldien obligazioei erantzuteko, 251.332.838,73 euroko aparteko kredituak emango dira «Sustapen Ministerioa» 17. atalaren aurrekontuan, I. eranskinean jaso bezala.

2. «Oleg Naydenov» ontziko erregaia ateratzearen gastuak finantzatzeko, 31.049.920 euroko kreditu-gehiarri bat emango da ondoko aurrekontuan: «Sustapen Ministerioa» 17. atala, «Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusia» 32. zerbitzua, «Salbamendua eta itsasoko kutsaduraren aurkako borroka» 497M programa, «Transferentzia arruntak» 4. kapitulua, «Sektore publikoko elkarte, enpresa-erakunde publiko, fundazio eta gainerako erakundeei zuzenduta» 44. artikulua, «SASEMAR erakundeari, Oleg Naydenov ontzia hondoratzearen ondoriozko gastuetarako» 443. kontzeptua.

3. Onartu egiten da Itsasoko Salbamendu eta Segurtasun Elkarte (SASEMAR) enpresa-erakunde publikoaren 2015rako ustiapen-aurrekontuaren aldaketa, II. eranskin gisa jasotakoa. Bertan azaltzen dira, hain zuzen, errege lege-dekretu honetan jasotako 31.049.920 euroko kreditu-gehiarria; Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legea aldatzen duen, Estatuaren aurrekontuetan aparteko kredituak eta kreditu-gehiarriak ematen dituen eta zergen arloan beste neurri batzuk hartzen dituen maiatzaren 14ko 6/2015 Errege Lege Dekretuak esleitutako 9.636.360 euroko aparteko kreditua; eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroak onartutako 250.000 euroko kreditu-transferentzia, «Prestige» itsasontziaren hondamendiaren eraginez Espainiako Estatuari atzerrian laguntza juridikoa emateko zerbitzuak kontratatatzeko.

7. *artikulua. Aparteko kredituak eta kreditu-gehiarriak ematea Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrekontuan.*

1. Aurreko ekitaldietako obligazioei erantzuteko, 69.548.969,42 euroko aparteko kredituak emango dira «Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa» 23. atalaren aurrekontuan, III. eranskinean jaso bezala.

2. Aurreko ekitaldietako obligazioei erantzuteko, 6.780.953,05 euroko kreditu-gehiarriak emango dira «Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa» 23. atalaren aurrekontuan, III. eranskinean jaso bezala.

8. *artikulua. Konfederazio hidrografikoen aurrekontuak aldatzea.*

Aurreko ekitaldiei dagozkien Estatuaren titulartasuneko ondasunen tokiko tributuen ordaintze aldera, guztira 13.450.451,54 euroko kreditu-gehiarriak emango dira konfederazio hidrografikoen aurrekontuetan, IV. eranskinean jaso bezala.

Zenbateko hori bera duen eta Uraren Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuan ematen den aparteko kredituaren bidez –II. eranskinean jasoa– finantzatzeko da erakunde autonomoaren kreditua.

Konfederazio hidrografikoetara bideratutako gainerako aparteko kredituak III. eranskinean jaso dira eta haien diru-sarreraren aurrekontuan izango dute isla, IV. eranskinean jaso bezala.

9. *artikulua. Kreditu osagarrien finantzaketa.*

Errege lege-dekretu honek Estatuaren aurrekontuan ematen dituen aparteko kredituak eta kreditu-gehiarriak zor publikoaren kontura finantzatzeko dira.

10. *artikulua. Gastuak aurrekontuan aplikatzea.*

Honako errege lege-dekretuaren bidez ematen diren aparteko kredituei eta kreditu-gehigarriari aurrekontuetan egotzen zaizkien gastuak, aurreko ekitaldien obligazioei erantzuteko baitira, kontabilizatuak egon beharko dira «Aurrekontuan aplikatuak izateko zain dauden operazioen hartzekodunak» 413 kontuan, Aurrekontuen Lege Orokorraren 159.1.g) artikuluan aurreikusitako finantza-kontrolerako etengabeko jarduketak edo kontabilitate- eta aurrekontu-araudian aurreikusitako zentro kudeatzaileen jakinarazpenak direla-eta. Estatuko Administrazioako Esku-hartzailetza Nagusiak, ministerio-saileko ordezko esku-hartzailetzaren edo dagokion organismo publikoaren bidez, zainduko du esandako eskakizuna betetzen dela.

### III. KAPITULUA

#### Bestelako neurriak

11. *artikulua. Finantzaketa-aurrerakinak udalerrri jakin batzuen alde.*

1. Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren ebazpenari jarraikiz, artikulua honetan zehaztutako egoera bizi duten udalei esleitu ahal izango zaizkie aurrekontuz kanpoko aurrerakinak, zenbateko hori gehienez ere 2015. urteko Estatuko tributuetako parte-hartzearen kontura egindako entregean baliokidea izanik. Aipatutako aurrerakinak 2016an formalizatu beharreko mailegu-operazioen bidez birfinantzatzeko dira, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsaren Ordenazio Funtsaren konpartimentuaren kargura, abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuak arautua, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriari eta bestelako neurri ekonomikoei buruzkoak.

2. Aurretik aipatutako aurrerakinak honako hauek eskatu ahal izango dituzte:

a) Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriari eta bestelako neurri ekonomikoei buruzko abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuaren 39.1.a) artikuluan zehaztutako esparru subjektiboari dagozkion eta 2015eko otsailaren 12ko Autonomietako eta Tokiko Koordinazioko Idazkaritza Nagusiaren ebazpen bidez onartuta argitaratu zen zerrendan jasota dauden udalek.

b) Administrazio publikoen berankortasunaren kontrako eta finantza-arazoak dituzten tokiko entitateei laguntzeko premiazko neurriari buruzko ekainaren 28ko 8/2013 Errege Lege Dekretuaren 22. artikulua araututako Estatuko tributuetan parte hartzeko aurrerakinak jaso zituzten udalek.

3. Deskribatutako egoeretan egonik artikulua honetan aipatutako aurrerakinak eskatzen dituzten udalek 2015eko urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute neurri horri heltzeko Udalbatzaren Osoko Bilkura, eta bertan zehaztu aurrerakinaren zenbatekoa eta konpromisoa, alde batetik, 2016an Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsaren Ordenazio Funtsaren konpartimentuaren kargura egingo den mailegu-eragiketa bat formalizatzeko, esleitutako aurrerakina birfinantzatze aldera, eta, bestetik, bere gain hartzeko konpartimentu horri buruz 17/2014 Errege Lege Dekretuan jasotako baldintza guztiak, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioak toki-erakundeak 2016an aurkeztutako doikuntza-planari buruz egingo duen balorazioan adierazitako neurrien onarpenarekin batera, hala badagokio. Behin aurrerakina esleituta, haien titulartasunpeko eta erabilera mugatuko banku-kontu bat ireki beharko dute, eta bertan sartuko zaie aurrerakina. Tokiko Gobernu Batzarrak zenbaki honek adierazitako akordioa hartu ahalko du baldin eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen hamaseigarren xedapen gehigarrian jasotako baldintzak batera betetzen badira.

4. Esleitutako aurrerakinak hornitzaileekin eta kontratistekin ordaintzeke dauden obligazioak kitatzera bideratu beharko dira, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia murrizte aldera, berankortasunari buruzko araudiak zehaztutako gehieneko epea 30 egun baino gehiagoan gainditu ez dezan, bai eta epai irmoak gauzatzera eta Zerga

Administrazioko Estatu Agentziarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin ordaintzeke edukitako zorrak kitatzera ere. Edozein kasutan, ordaintzeke dauden obligazioak kitatzeko orduan, aplikatu beharreko lehentasun-irizpideak hartuko dira kontuan.

5. Aurrerakinak eskatzen dituzten udallerriek 2016ko apirilean aurkeztu beharko dituzte artikuluko honen 3. zenbakian adierazitako doikuntza-planak, eta Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak baloratuko ditu 2016ko maiatzean. Azken hilabete horretan, aipatutako erakundeek Idazkaritzak adierazitako neurriak hartuko dituzte, hala badagokio, eta aurkeztutako doikuntza-planak baldintza horien arabera aldatuko dira.

2016ko ekainean mailegu-eragiketak Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsaren Ordenazio Funtsaren konpartimentuarekin formalizatuko dira, emandako aurrerakinak kitatzearren eta Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak adostutako baldintzei jarraikiz. Aipatutako eragiketak ez dira egongo Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginean eta, hala badagokio, Estatuaren aurrekontu orokorren legeetan ezarritako baimen-araubidearen mende.

6. Toki-korporazioek 2016an ez badute aurreko zenbakian aipatutako jarduketarik gauzatzen, aurrerakina osorik itzuli beharko dute entrega urte horretako uztailera Estatuko tributuetako parte-hartzearen kontura egitetik aurrera. Aplikatu beharreko itzultze hori entregean ehuneko 100ean aplikatuko da. Aldi berean suertatzen badira itzultzea eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Tokiko Ogasunak arautzen dituen legearen testu bateginaren laugarren xedapen gehigarria aplikatuz gauzatu beharreko atxikipenak, lehenak lehentasuna edukiko du horien aurrean, eta ez dira kontuan hartuko dagokion Estatuko Aurrekontu Orokorren legeak arlo horretan araututako portzentajeak kalkulatzeko.

7. Artikulu honen 2.a) zenbakian zehaztutako esparru subjektiboaren alorreko udalek, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsaren Ordenazio Funtsaren konpartimentuari atxikita egonik edo 2015ean atxikitzen bazaizkio, artikuluko honetan ezarritako aurrerakinei heldu ahal izateaz gain, aukera izango dute salbuespen moduan eta 2015eko urriaren 15a baino lehen konpartimentu horren kargura egindako maileguak formalizatu daitezela eskatzeko, Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin ordaintzeke edukitako zorra kitatze aldera, baldin eta zor hori ordaintzeko Estatuko tributuetako parte-hartzea atxikipenak jasotzen ari bada, betiere abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuan ezarritako baldintzekin bat.

12. *artikulua. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena, aldatzea.*

Aldatu egiten da 75. artikuluko 1. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko da, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

a) Urteko negozio-bolumenak –edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumenak– lizitazioaren iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du.

b) Egoki den kasuetan, arrisku profesionalak estaltzeko kalte-ordain aseguru bat edukitzearen egiaztagiria, lizitazioaren iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gaindituko duena.

c) Ondare garbiak –edo, urteko kontuak onartuta izateko obligazioak harrapatzen duen azken ekitaldi ekonomikoaren itxierako aktiboen eta pasiboen arteko ratioak– lizitazioaren iragarkian edo prozeduran parte hartzeko

gonbidapenean eta kontratuaren agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du.

Zenbaki honetako aurreko letretan ezarritako bitartekoen gehigarri moduan, kontratazio-organoak galdatu ahal izango du enpresariak hornitzaileei ordaintzeko duen batez besteko epeak ez dezala gainditu Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroaren Aginduak helburu horretarako ezarritako muga, betiere galeren eta irabazien kontu laburtua ezin aurkez dezakeen elkartea bada, berankortasunari buruzko araudia aintzat hartuta.»

Lehenengo xedapen gehigarria. *Funtzionario publikoen baimenak eta oporrak.*

Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 8. artikulua 3. zenbakiak administrazio publikoetako eta haiei lotutako edo haien mendeko organismo eta erakundeetako funtzionario eta lan-kontratudun langileentzako hitzarmen, itun eta akordioei dagokienez ezartzen duen muga errege lege-dekretu honek funtzionario publikoen baimenei eta oporrei emandako testu berriari dagokiola joko da.

Bigarren xedapen gehigarria. *Norbere kontuetarako antzinatasun-baimena Estatuaren Administrazio Orokorrean aplikatzea.*

Errege lege-dekretu honen 2.Bi artikulua aipatutako baimena Estatuaren Administrazio Orokorrean eta lotutako eta mendeko erakundeetan aplikatu beharko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Estatuaren Administrazio Orokorreko antzinatasunaren araberako opor gehigarriak.*

Estatuaren Administrazio Orokorrean eta lotutako eta mendeko erakundeetan, administrazioan adierazitako antzinatasun-urteak betetzekotan, eskubidea edukiko da urte osoan hurrengo opor-egunez gozatzeko:

- Hamabost urtez lan eginda: Hogeita hiru egun baliodun.
- Hogeitaz urtez lan eginda: Hogeita lau egun baliodun.
- Hogeitaz bost urtez lan eginda: Hogeita bost egun baliodun.
- Hogeitaz hamar urte edo gehiago lan eginda: Hogeita sei egun baliodun.

Laugarren xedapen gehigarria. *ETE 2014-2020 ekimenaren Programa Eragilearen kudeaketa.*

Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Aurrekontu eta Gastuen Estatuko Idazkaritzari baimena ematen zaio Europako Inbertsio Funtzaren (EIF) aldeko ETE 2014-2020 ekimenaren (EIF/SME Initiative Spain–Dedicated Window Account) Programa Eragileko eragiketarako erreserbatuta dagoen kontu bereziko aktiboak pignoratzeko, dagokion bahi-kontratua gauzatzearen bidez.

Honako hauek osatuko dituzte kontuko aktibo pignoratuak:

- Espainiako Erresumak Europako Batzordeak transferitutako zenbatekoekin osatutako gordailuek, ETE 2014-2020 ekimenaren Programa Eragilearen kargura.
- Espainiako Erresumak pignorazio-hartzekodunaren aurka orain nahiz etorkizunean izan dezakeen beste edozer kreditu, diruzaintzako aktiboaren kudeaketaren ondorioz.
- Espainiako Erresumak kontu horri dagokionez banku gordailuzainaren aurka izan dezakeen edozer kreditu.

Bahia Espainiako Erresumak EIFrekiko dituen obligazioak bermatzeko osatuko da, Espainiako Erresumak EIFrekin izenpetutako akordioei jarraikiz edo haiekin bat sortuak eta ETE 2014-2020 ekimenaren Programa Eragileari dagozkionak.

Lehenengo paragrafoan aipatutako kontura egindako ekarpenak aurrekontu-izaera ez duten diruzaintza-eragiketen bidez bideratuko dira.

Azken xedapenetatik lehena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu honen 1. artikulua Konstituzioko 149.1. artikuluko 13. eta 18. arauak Estatuari ematen dizkioten eskumen eskusiboaren babespean idatzi da, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak ezartzearen eta koordinazioa egitearen eta Administrazio Publikoen araubide juridikoaren eta estatutu-araubidearen oinarriak zehaztearen arloan, hurrenez hurren.

Azken xedapenetatik bigarrenaren 2., 3. eta 13. artikulua, bai eta errege lege-dekretu honen azken xedapenetatik lehena ere, Konstituzioko 149.1.18. arauak Estatuari ematen dizkioten eskumen eskusiboaren babespean idatzi dira, Administrazio Publikoen araubide juridikoaren nahiz bere funtzionarioen estatutu-erregimenaren eta kontratuen inguruko oinarriko legeriaren oinarriak ezartzearen arloan, hurrenez hurren.

Errege lege-dekretu honen laugarren xedapen gehigarriaren 4.–10. artikulua Konstituzioko 149.1.14. artikulua Estatuari Ogasun Orokorraren arloan ematen dion eskumen eskusiboaren babespean idatzi dira.

Errege lege-dekretu honen 11. artikulua, azkenik, Konstituzioko 149.1. artikuluko 14. eta 18. arauak Estatuari ematen dizkioten eskumen eskusiboaren babespean idatzi da, Ogasun Orokorraren eta Administrazio Publikoen araubide juridikoaren arloan, hurrenez hurren.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzea.*

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa honela geratu da aldatu ondoren:

Bat. 62. artikuluko 2. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«2. Lehiaketetara aurkeztu ahal izango dira 59. eta 60. artikuluetan araututakoaren arabera akreditazioa eskuratu dutenak, kasu bakoitzean, bai eta Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegoko eta Unibertsitateko Katedradunen Kidegoko funtzionarioak ere.

Halaber, unibertsitateek euren aurrekontuetako gastu-egoeran zuzkidura daukaten barne-sustapenerako plazetarako deialdia egin ahalko dute, Unibertsitateko Katedradunen Kidegora sartze aldera. Plaza horiek ezingo dute gaintu txanda askeko enplegu-publikorako eskainitako plazen kopuru maximoa, eta urte berean deialdia luzatuko da Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegoko edo lkerketako Organismo Publikoetako Ikertzaile Zientifikoaren Eskalako karrera duten funtzionarioak lege horretako 56. artikuluko irakasle-kidegoetara sartzeko, gutxienez ere bi urtez modu efektiboan jardun badute izaera horretako zerbitzuetan. Lehiaketa horietan parte hartzen duten funtzionarioek Unibertsitateko Katedradunen Kidegora sartzeko egiaztapena izan beharko dute».

Bi. 63. artikulua honako idazkera hau izango du:

«63. artikulua. *Irakasleen mugikortasuna.*

Unibertsitateek lehiaketak antolatu ahal izango dituzte euren aurrekontuetako gastu-egoeran zuzkidura daukaten eta hutsik dauden irakasle-lanpostuak betetzeko; betiere, arau hauek bete beharko dituzte:

1. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean emango da argitara; deialdi horretan, alderdi hauek jaso beharko dira, gutxienez:

a) Deialdian jasotako lanpostu bakoitzaren identifikazioa. Lanpostu horiek Unibertsitateko lanpostuen zerrendan jasota egon beharko dira, Legearen 70. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta honako alderdi hauek zehaztu beharko dira



deialdian: lanpostuaren izena, ezaugarriak, hutsik dagoen lanpostuaren kidegoa, eta jakintza-arloa.

b) Hutsik dauden lanpostuak esleitzeko balioespen-irizpideak; curriculum-izaerakoak beharko dira izan, eta hautagaiak irakaskuntzan eta ikerketan egindako bidea jaso beharko dute, bai eta dagokion arlo edo espezialitatean duen proiektua, eta ahozko azalpenak emateko duten gaitasuna ere.

2. Hutsik dauden lanpostuak betetzeko lehiaketetan parte hartu ahal izango dute jatorrizko lanpostuan gutxienez bi urtez jardun dutenek eta baldintza hauek betetzen dituztenek:

a) Katedradun-lanpostuetarako: 1. Espainiako lurraldean dauden unibertsitateetako Katedradun Kidegoko karrerako funtzionario izatea. 2. Hutsik dagoen lanpostuaren jakintza-arloko Ikerketako Organismo Publikoetako Ikerketako Irakasleen Eskalako karrerako funtzionario izatea eta unibertsitate-katedradunentzako akreditazioa izatea.

b) Irakasle Titular lanpostuetarako: 1. Espainiako lurraldean dauden unibertsitateetako Irakasle Titularren Kidegoko karrerako funtzionario izatea. 2. Hutsik dagoen lanpostuaren jakintza-arloko Ikerketako Organismo Publikoetako Ikertzaile Zientifikoaren Eskalako eta Ikerketako Organismo Publikoetako Zientzialari Titularren Eskalako karrerako funtzionario izatea, eta unibertsitateko irakasle titularrentzako akreditazioa izatea.

3. Lege honetako 64., 65. eta 66. artikuluetan ezarritako arauak mugikortasun-lehiaketetan aplikatu beharko dira.

Parte hartzeko baldintza guztiak eta alegatutako merezimenduak eskaerak aurkezteko epea amaitzean bildu beharko dira, eta dagozkion deialdietan adierazitako moduan egiaztatu beharko dira.

4. Lanpostuak betetzeko lehiaketaren bidez lortutako lanpostua gutxienez bi urtez bete beharko da, unibertsitate horretan edo beste batean bestelako lanpostua lortzeko lehiaketa berri batean parte hartu ahal izan baino lehen.

5. Lehiaketa horietan betetako lanpostuak ez dira kontuan hartuko lan-eskaintza publikoaren ondorioetarako, ez baitira langile berri.»

Hiru. 64. artikulua honako idazkera hau izango du:

«64. artikulua. *Proben bermea.*

1. Sarrera-lehiaketetan, bai txanda askekoetan eta bai barne-sustapenekoetan, uneoro bermatuko da hautagaien aukera-berdintasuna eta merezimendu- eta gaitasun-printzipioekiko errespetua.

2. Aipatutako sarrera-lehiaketetan, unibertsitateek publikoki jakinaraziko dute batzordeen osaera, bai eta plazak esleitzeko irizpideak ere. Behin horiek gauzatuta, hautagai bakoitzaren ebaluaketaren emaitzak argitaratuko dira, ebaluatutako alderdi bakoitza xehatuta.»

Azken xedapenetatik hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jarriko da Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egun berean.

Madriren, 2015eko irailaren 11n.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
MARIANO RAJOY BREY

## I. ERANSKINA

## 17. atala: Sustapen Ministerioa

Ematen diren aparteko kredituak:**Zerbitzua: 38. Errepide Zuzendaritza Nagusia**

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
453B <u>60. artikulua</u>	<u>Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria.</u>	
Kontzeptua 608	Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria: Lursailak eta ondasun naturalak. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	100.554.263,41
Kontzeptua 609	Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria: Beste batzuk. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	82.622.594,17
453B <u>61. artikulua</u>	<u>Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa.</u>	
Kontzeptua 618	Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa: Lursailak eta ondasun naturalak. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	16.637.783,45
Kontzeptua 619	Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa: Beste batzuk. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	10.858.894,75
453B <u>62. artikulua</u>	<u>Zerbitzuen funtzionamendu operatiboarekin lotutako inbertsio berria.</u>	
Kontzeptua 628	Zerbitzuen funtzionamendu operatiboarekin lotutako inbertsio berria. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	19.589,94
453B <u>64. artikulua</u>	<u>Inbertsio-gastuak, immaterialekoak</u>	
Kontzeptua 648	Inbertsio-gastuak, immaterialekoak. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	450.666,21
453C <u>61. artikulua</u>	<u>Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa.</u>	
Kontzeptua 618	Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa: Lursailak eta ondasun naturalak. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	3.405.145,70
Kontzeptua 619	Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa: Beste batzuk. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	36.783.901,10

**Programen izendapena**

453 B programa: "Errepide-azpiegiturak sortzea"

453 C programa: "Errepideak kontserbatu eta ustiatzea"

## II. ERANSKINA

## ITSASOKO SALBAMENDU ETA SEGURTASUN ELKARTEA (SASEMAR)

## 2015ERAKO USTIAPEN AURREKONTUA

(Zenbatekoa mila eurotan)

IRABAZIEN ETA GALEREN KONTUA	HASIERAKO AURREKONTUA	ALDAKETA (*)	AMAIERAKO AURREKONTUA
<b>A) ERAGIKETA JARRAITUAK</b>			
1. NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	13.076		13.076
4. HORNIKUNTZAK	- 55.876	- 40.686	- 96.562
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak	- 55.876	- 40.686	- 96.562
5. USTIAPENENKO BESTELAKO DIRU SARRERAK	123.500	40.936	164.436
a) Sarrera osagarriak eta gestio arrunteko beste batzuk	3.500		3.500
b) Ekitaldiaren emaitzan sartutako ustiapenerako diru-laguntzak	120.000	40.936	160.936
- Estatuko Administrazio Orokorrarenak	120.000	40.936	160.936
6. LANGILEEN GASTUAK	- 63.119		- 63.119
7. USTIAPENENKO BESTELAKO GASTUAK	- 11.404	- 250	- 11.654
a) Kanpoko zerbitzuak	- 11.404	- 250	- 11.654
8. IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA	- 34.695		- 34.695
9. IBILGETU EZ-FINANTZARIOKO DIRU-LAGUNTZEN ETA BESTELAKOEN EGOZPENA	30.498		30.498
A.1) USTIAPENAREN EMAITZA	1.980		1.980
18. FINANTZA GASTUAK	- 1.980		- 1.980
A.2.) EMAITZA FINANTZARIOA	- 1.980		- 1.980
A.5.) EKITALDIKO EMAITZA	0		0

(\*) Aldaketak barruan hartzen ditu Errege Lege Dekretu honetan jasotako 31.049.920 euroko kreditu-gehigarria; Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legea aldatzen duen, Estatuaren aurrekontuetan aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak ematen dituen eta zergen arloan beste neurri batzuk hartzen dituen maiatzaren 14ko 6/2015 Errege Lege Dekretuak esleitutako 9.636.360 euroko aparteko kreditua; eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroak onartutako 250.000 euroko kreditu-transferentzia, «Prestige» itsasontziaren hondamendiaren eraginez Espainiako Estatuari atzerrian laguntza juridikoa emateko zerbitzuak kontratatzeke.

## III. ERANSKINA

## 23. atala: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa

**Ematen diren aparteko kredituak:****Zerbitzua: 05. Uraren Zuzendaritza Nagusia**

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
452A <u>60. artikulua</u> Kontzeptua 602	<u>Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria.</u> Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	7.293.893,01
452A <u>61. artikulua</u> Kontzeptua 614	<u>Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa.</u> Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	12.991.766,99
452A <u>62. artikulua</u> Kontzeptua 621	<u>Zerbitzuen funtzionamendu operatiboarekin lotutako inbertsio berria.</u> Zerbitzuen funtzionamendu operatiboarekin lotutako inbertsio berria. Aurreko urtealdietako obligazioak	34.460,14
452A <u>64. artikulua</u> Kontzeptua 641	<u>Inbertsio-gastuak, immaterialekoak</u> Inbertsio-gastuak, immaterialekoak. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	102.050,45
456A <u>60. artikulua</u> Kontzeptua 602	<u>Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria.</u> Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria. Aurreko urtealdietako obligazioak	7.139.307,77
456A <u>61. artikulua</u> Kontzeptua 614	<u>Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa.</u> Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa. Aurreko urtealdietako obligazioak	90.379,97
456A <u>64. artikulua</u> Kontzeptua 641	<u>Inbertsio-gastuak, immaterialekoak</u> Inbertsio-gastuak, immaterialekoak. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	1.577.556,94
000X <u>41. artikulua.</u> Kontzeptua 412	<u>Erakunde autonomoentzat</u> Konfederazio hidrografikoei, estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	
	00 Dueroko Konfederazio Hidrografikoa	2.870.271,46
	01 Ebroko Konfederazio Hidrografikoa	4.175.606,74
	02 Guadalquivirreko Konfederazio Hidrografikoa	16.290.208,63
	03 Guadianako Konfederazio Hidrografikoa	10.672.707,48

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
000X 41. artikulua. Kontzeptua 412	<u>Erakunde autonomoentzat</u> Konfederazio hidrografikoei, estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko. Aurreko ekitaldietako obligazioak.	
	04 Júcarreko Konfederazio Hidrografikoa	1.985.195,65
	05 Miño-Sileko Konfederazio Hidrografikoa	118.860,67
	06 Segurako Konfederazio Hidrografikoa	671.375,91
	07 Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa	61.487,23
	08 Tajoko Konfederazio Hidrografikoa	3.473.840,38

**Ematen diren kreditu-gehigarriak:****Zerbitzua: 05. Uraren Zuzendaritza Nagusia**

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
452A 60. artikulua Kontzeptua 609	<u>Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria.</u> Desjabetzeak, aldaketak, gehigarriak eta aurreko ekitaldietako inbertsioen bestelako eraginak	1.029.517,56
452A 61. artikulua Kontzeptua 619	<u>Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak berritzeko inbertsioa</u> Aurreko ekitaldietako inbertsioen eraginak	4.964.051,15
456A 60. artikulua Kontzeptua 609	<u>Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetarako inbertsio berria.</u> Desjabetzeak, aldaketak, gehigarriak eta aurreko ekitaldietako inbertsioen bestelako eraginak	787.384,34

**Programen izendapena**

452A programa: "Uraren kudeaketa eta azpiegiturak"

456A programa: "Uraren kalitatea"

000X programa: "Barne-transferentziak"

## IV. ERANSKINA

Konfederazio hidrografikoen aurrekontuak aldatzea

## 102 Erakundea: Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa

DIRU-SARRERAK

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
<u>40. artikulua.</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u>  Atxikita dagoen sailarena 01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	61.487,23
<u>87. artikulua.</u> Kontzeptua 870	<u>Diruzaintzako gerakina</u>  Diruzaintzako gerakina	- 61.487,23

## 103 Erakundea: Dueroko Konfederazio Hidrografikoa

DIRU-SARRERAK

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
<u>40. artikulua.</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u>  Atxikita dagoen sailarena 01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	2.870.271,46
<u>87. artikulua.</u> Kontzeptua 870	<u>Diruzaintzako gerakina</u>  Diruzaintzako gerakina	- 2.749.098,96

GASTUAK

## Kreditu-gehigarria:

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
452A <u>22. artikulua</u> Kontzeptua 225	<u>Materiala, hornikuntzak eta bestelakoak</u>  Zergak 05 Estatuaren titulartasuneko ondasunen tokiko tributuoak, aurreko ekitaldietako obligazioak barne	121.172,50

## 104 Erakundea: Ebroko Konfederazio Hidrografikoa

DIRU-SARRERAK

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
<u>40. artikulua.</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u>  Atxikita dagoen sailarena 01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	4.175.606,74
<u>87. artikulua.</u> Kontzeptua 870	<u>Diruzaintzako gerakina</u>  Diruzaintzako gerakina	- 4.175.606,74



**105 Erakundea: Guadalquivirreko Konfederazio Hidrografikoa****DIRU-SARRERAK**

<b>Aplikazioa</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa (eurotan)</b>
<u>40. artikulua</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u> Atxikita dagoen sailarena	
	01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	16.290.208,63
<u>87. artikulua</u> Kontzeptua 870	<u>Diruzaintzako gerakina</u> Diruzaintzako gerakina	- 16.290.208,63

**106 Erakundea: Guadianako Konfederazio Hidrografikoa****DIRU-SARRERAK**

<b>Aplikazioa</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa (eurotan)</b>
<u>40. artikulua</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u> Atxikita dagoen sailarena	
	01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	10.672.707,48

**GASTUAK****Kreditu-gehiagarria:**

<b>Aplikazioa</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa (eurotan)</b>
452A <u>22. artikulua</u> Kontzeptua 225	<u>Materiala, hornikuntzak eta bestelakoak</u> Zergak	
	05 Estatuaren titulartasuneko ondasunen tokiko tributua, aurreko ekitaldietako obligazioak barne	10.672.707,48

**107 Erakundea: Júcarreko Konfederazio Hidrografikoa****DIRU-SARRERAK**

<b>Aplikazioa</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa (eurotan)</b>
<u>40. artikulua</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u> Atxikita dagoen sailarena	
	01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	1.985.195,65

**GASTUAK****Kreditu-gehiagarria:**

<b>Aplikazioa</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa (eurotan)</b>
452A <u>22. artikulua</u> Kontzeptua 225	<u>Materiala, hornikuntzak eta bestelakoak</u> Zergak	
	05 Estatuaren titulartasuneko ondasunen tokiko tributua, aurreko ekitaldietako obligazioak barne	1.985.195,65

## 108 Erakundea: Miño-Sileko Konfederazio Hidrografikoa

DIRU-SARRERAK

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
<u>40. artikulua</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u> Atxikita dagoen sailarena 01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	118.860,67
<u>87. artikulua</u> Kontzeptua 870	<u>Diruzaintzako gerakina</u> Diruzaintzako gerakina	- 118.860,67

## 109 Erakundea: Segurako Konfederazio Hidrografikoa

DIRU-SARRERAK

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
<u>40. artikulua</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u> Atxikita dagoen sailarena 01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	671.375,91

GASTUAK

## Kreditu-gehigarria:

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
452A <u>22. artikulua</u> Kontzeptua 225	<u>Materiala, hornikuntzak eta bestelakoak</u> Zergak 05 Estatuaren titulartasuneko ondasunen tokiko tributuak, aurreko ekitaldietako obligazioak barne	671.375,91

## 110 Erakundea: Tajoko Konfederazio Hidrografikoa

DIRU-SARRERAK

Aplikazioa	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
<u>40. artikulua</u> Kontzeptua 400	<u>Estatuaren Administrazioarena</u> Atxikita dagoen sailarena 01 Estatuaren titulartasuneko ondasunen OHZ ordaintzeko	3.473.840,38
<u>87. artikulua</u> Kontzeptua 870	<u>Diruzaintzako gerakina</u> Diruzaintzako gerakina	- 3.473.840,38